

2025 - 2026 ikasturtea

Hernani



eskolako
agenda
2030

11 HIRI ETA KOMUNITATE
IRAUNKORRAK



Familia estimatua,

Ikasturte hasierarekin bat eginez, aurtengo Eskolako Agenda 2030 programa martxan jartzeko lehen urratsak ematen ari gara. Programa bi ikasturteko zikloetan garatzen da eta ziklo bakoitzean garapen Jasangarriko Helburu (GJH) bat lantzen da. Une honetan, **GJH 11: HIRI ETA KOMUNITATE IRAUNKORRAK** lantzen ari gara, eta zehazki, **MUGIKORTASUN JASANGARRIA** da jorratzen ari garen gaia.

Oraingoan, bi ikasturteko zikloari amaiera emango diogu. Iaz diagnostikoa burutu genuen eta aurreko ekintzetara pasatzeko garaia iritsi zaigu. Beraz, esku-hartze plana gauzatuko dugu.

Hamaikagarren GJH honen xedea Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea da. Eta helmuga ezberdinen artean, garraiatzeko modu jasangarrien erabilera sustatzen du.

Iaz, herriko egoera aztertzeaz gain, ikastetxera nola goazen aztertu genuen ere. Hernaniko kaleak eta errepideen egoera, oinezko bideak, bidegorri sarea, herritik kanpo irteteko ditugun garraio motak, garraio publikoa...

Egindako diagnostikoan oinarrituta eta esku-hartze planerako mugikortasunaren zein alderdi jorratu aztertu ondoren, 2025-2026 ikasturtean bi ekimenetan sakontzea aukeratu genuen. Hauek dira:

- Lehen Hezkuntzan, LAGUNBUSA, elkarrekin ikastolara.
- Bigarren Hezkuntzan herritarren artean sentsibilizazio kanpaina bat antolatu eta informazioa zabaltzeko. Aldi berean, herritarren iritzia ere ezagutuko ditugu, sortzen diren iradokizunak jasoz. Baita bizikletaren erabilera herrian eta inguruko herrietara mugitzeko.

Ekintza hauen helburua ez da soilik ikasleak jasangarritasunean hezteko, baizik eta beren ingurunea eraldatzeko prozesuan parte hartzea.

Zuek ere interesatu eta parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu. Familien inplikazioa funtsezkoa da proposatutako ekintzek benetako eragina izan dezaten. Zuen seme-alabekin ikasten ari direnari buruz hitz egitera, ideiak partekatzea eta ikasturtean zehar garatuko diren ekimenetan parte hartzera animatzen zaituztegu.

Elkarrekin, Hernani, guztiontzat herri jasangarriago bat eraiki dezakegu. Eskerrik asko zuen laguntza eta konpromisoagatik.

Agur bero bat,

Eskolako Agenda 2030eko batzordea